

Aretxa gazeta

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1997ko abenduak 4 • 134. zka.

3

Fundacion de la Cofradia de S.^o Jose Eneko dia 21
de 1855.


- 1.^a La Entrada de cada Persona es a cuatro reales advi-
tiendo que no se admitira en este precio ninguna Persona
de edad como no este agregado a su familia
- 2.^a Este Pago se ara durante de 15 dias, y si en este Intermedio
falleciere alguna Persona sin que Pague no abonara la
Cofradia;
- 3.^a Toda Persona Mayor tendra por derecho de Enterrar en
caja y la Cofradia le abonara 150 r la bayeta para dicha
caja, Tendran por derecho que Poner 6 libras de a media li-
bra cada una para la caja, 6 r para los Curas de 2 onzas
cada uno, 16 r para los altaris mas Pequenos de onza y a
cada uno segun se acostumbra en la Cofradia de S.^o Martin,
- 4.^a Tendra que ir una Persona Mayor al Entierro yena de 2 r
Cada vez que falta,
- 5.^a Se le abonara al Entierro de una criatura 32 r ; Pero ten-
dra por derechos de llevar en caja y Poner 4 libras de 2 onzas
cada uno a dicha caja;
- 6.^a Se Escogeran 12 Personas para levantar las achas y este
servicio se ara alternando, y lo mismo cumplira con
otra Persona este servicio sino puede ir dicha Persona;
- 7.^a a ninguno se le abonara ningun Salario pero si el
Mayordomo adelantase se le abonara el 6 por ciento,
8. El dia S.^o Jose se celebrara una misa Solemne y au-
diran todos los Cofrades, y en seguida sera las cuentas
al Mayordomo;

San Martin-San Jose Kofradia

Aurten estatutuak onartu dira

EPERAKO AURREZKIA


Aurrezkiaren fruituak 97ko Udazken-Negua



Hormako erlojua egurrezko markoarekin.

175.000 pezeta 7 hilerako

275.000 pezeta 4 hilerako



Edalontzidun (1,5 l) Solac irabiagailua.

175.000 pezeta 12 hilerako

275.000 pezeta 7 hilerako



Fagor lapiko azkarra (6 litro)
Gasa, Elektr., Vitro., Indukzioa.

275.000 pezeta 12 hilerako

450.000 pezeta 7 hilerako

Eskaintza bateratua
525.000 pta. 12 hilerako

Zatoz Euskadiko Kutxara. Berehala jasoko duzu zure aurrezkien fruitua. Eta gogoan izan, eragiketa formalizatu eta gero, aukeratutako produktua gustatzen ez bazaizu, beste bat hartu edo eragiketa deusezteko aukera duzula.

Izakinak bukatu arteko eskaintza.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun zuzena



Zer irizten diozu jai egunetan dendak zabaltzeari?

Kontxi Balerdi
(Etxekoandrea)

Niri pertsonalki ez zait ardura. Niri berdin zait hiru egunerako erosketak egitea baina beste pertsona batzuei mesede egin diezaiok.




Manolo Hernandez
(Langilea)

Ez dago ondo. Alde bate-tik bertako langileek lan egin behar dutelako eta beste aldetik komertzio txikiei kalte egiten dielako.



Jesus Lonbide
(Langilea)

Ez dut ondo ikusten dendak zabaltzea. kalendarioak eginda daude jai egunak aipatuz. Bertako langileak ere lan egin beharra dute.



Carmen Perez
(Etxekoandrea)

Niri berdin zait jai egunetan dendak irekitzea. Nik lehenagotik egingo ditut erosketak.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Ortzadar taldearen ibilera berria

Ortzadar Atsedeen Taldeak abenduaren 13rako herri guztiari zabaldua dagoen ekitaldi berezi bat antolatu du.

Egun honetan ekintza desberdinak burutuko dira: antzerkia, luntx-a, objektu zaharren lehiaketa,... Honekin Ortzadar taldeak, jasan duen aldaketa jakinarazi nahi dio herriari. Etorkizunean taldearen lana herri osoari zuzendua izango dela eta urtean zehar ekintza desberdinak antolatuko ditugu.

Objetu zaharren lehiaketa

Objetu zaharren lehiaketan parte hartzea nahi izan ezker, abenduaren 13an, goizeko 12etan herriko plazara gerturatzea besterik ez daukazu. Horretarako etxean duzun objektu zahar eta orijinalena (plantxa zahar, erloju bat...) ekarri eta beraiekin egingo den erakusketan parte hartuko duzu. Jakin lehiaketa 16 urterarteko neska-mutikoei

zuzenduta egongo dela.

Egun honetako ekintzen amaieran erakusketako hiru objektu zahar originalenak sarituko ditugu.

Animatu eta zatoz gurekin egun hau ospatzera

ORTZADAR ATSEDEEN TALDEA

e s k u t i t z a



Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz.
Erredakzio-kontseilua: Ines Maria Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Iruñe Iturbe, Alberto Izagirre, Alberto Elkorobarrutia. **Erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Publizitate arduraduna:** Rosa Mondragon. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Josu Urkia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da.
Lege gordailua: SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Leintz Bailarak 500 urte eta gero Gipuzkoan sartzea beronartu zuen

□ Aretxabaleta eta Eskoriatzako auzoalkateek Gipuzkoara pasatzeari baietza eman zioten



Isurietako auzoalkateak, Alberto Etxebarriak, liburua buruan jarrita baietza eman zuen unea

Leintz Bailarak aurten 500 urte Gipuzkoa izatera pasa zela gogoratzeko azaroaren 22an egin ziren ospakizun ekitaldiak.

Lehenengo ekitaldia Eskoriatzako kultur etxean hasi zen. Roman Sudupe Diputatuak eta Eskoriatzako alkateak ekitaldi honen inguruko erreflexioa egin ondoren "Leintz Bailarak 500 urte Gipuzkoan" erakusketa inauguratu zen.

Ekitaldiak Azatzako Otorora jauregian izan zuen jarraipena, Jose Luis Altuna, Azatzako auzoalkateak, ongietorria eman ondoren. Hainbat ekintza egin ziren jarraian, Iñaki Urretak abenduaren 13an aurkeztuko den liburuen laburpena irakurri zuen, Aretxabaleta eta Eskoriatzako idazkariek, 1497. urteko aktan Batzar Nagusiek Leintztarrei emandako erantzuna irakurri zuten.

Ondoren ekitaldiko ekintzarik politena eta aipagarriena burutu zen: alkate eta auzoalkateek akta buruaren gainean jarritz eta "onartzen dut" esanez orain 500 urteko gertakizunari baietza eman

zioten.

Liburuskaren aurkezpena eta erakusketa

Abenduaren 12an "Leintz Bailarak 500 urte Gipuzkoan erakusketa eta liburuen aurkezpena egingo da Aretxabaletako euskal txokoan.

Ospakizun hauen antolaketa lanetan ibili den lantalde batek egin du 60 orrialdetako liburua. Besteak beste, laburpen historikoa, Otoralan egindako ekintzaren laburpena, eta Leintz Bailarako etxeen hamarren argazkiak jasoko dira bertan.

Erakusketa ere euskal txokoan egongo da ikusgai abenduaren 13an hasi eta gabonetan zehar. Tolosako Gipuzkoako artxibotik eta Aretxabaleta eta Eskoriatzako Udaletatik jasotako garai hartako dokumentuak ikusi ahal izango dira. Honez gain XV eta XVI. mendeko lanbideekin lotutako tresnak eta makinak eta garai hartako jantziak giro-tuko dute erakusketa.



Saretxo elkarteak martxan

Azaroaren 20an, Nafarroa kalean duten lokala inauguratu eta herritarrentzako atek zabaldutako Saretxo elkarteak. Herritarrei informatika eta ordenagailuen munduaz gozatzeko aukera ematea du helburu elkarteak. Lokalean lau ordenagailu eta inpresora bat sarean elkartuta eta beste hiru ordenagailu dituzte. Oraindik ordenagailu bakarra dago internetekin lotuta, eta aurretik haren erabilera jartzeko asmoa dute. Ordenagailuen zerbitzua edozein herritarrek erabili dezake, lanak pasatzeko, inprimatzeko, interneten nabigatzeko, programa desberdinak erabiltzeko, besteak beste, Word, Netscape, Corel draw, photoshop eta Microsoft-eko programa erabilienak dituzte bertan. Elkartearen asmoa zerbitzuaren erabilzaileak bazkide egitea da, horretarako urtean kuota sinboliko bat ordainduz.

Ofizindegia - Gozategia

Aretxabaleta
Mitarte, 1-
Tfnoa: 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

**ZARAIA
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik
zurre zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

ESKORIATZA

Tfno 714345

**Bazkari
eta
afariak**

MENDIOLA
ERRETEGIA

**Astelehenetan itxita
ESKORIATZA**

60 bizikletatik gora jaso ziren Mozambikera bialtzeko

Joan den zapatuan Mozambikera zuzenduko diren 60 bizikletatik gora batu ziren herrian konfirmazioko taldearen eskutik. Bizikletak batu eta hirugarren mundura bidaltzearen inizatiba ONG baten eta beste entitate batzuen izan da eta konfirmazioko taldeak ere parte hartu du biltze honetan.

Horrelako esperientzia batean parte hartzen den lehen aldia bada ere esperientzia oso positibotzat jo du Jorge Bengoa konfirmazioko kideak, inizatiba hau bultzatu duenak. Jendearen partehartzea

haundia izan denez ekintza oso arrakastatsua izan dela adierazten du. “Denetik batu dugu, triziklo, motoreta, jugete, motor eta bizikleta pilo bat.

“Hirugarren mundurako laguntza haundia izango dela uste dugu, gehitzen du, Mozambiketan bizikletak erabiltzen dituzte garraibiderako eta”.

Guztira 3 milioi bizikleta bialduko dira Espainiatik, “Mozambikera biztanleriarentzat laguntza haundia izatea espero dugu”.



Jorge Bengoa
Konfirmazioko taldekoa

• Nola hartu duzue parte kanpaina honetan?

Telebistan entzun nuen bizikletak batzeko kanpaina martxan zegoela eta ideia polita zela ikusirik herrian ere egin zitekeela pentsatu nuen. Ondoren ETBra deitu nuen informazioa eskatzeko eta nora zuzendu behar nuen esan zidaten.

• Esperientzia guztiz berria izan da, nola baloratuko zenuke?

Jendearen partehartzea haundia izan da eta eskertzekoa. 60 bizikletatik gora jaso ziren, mota guztietakoak gainera, motozikleta, patinete, motor... Errepikatze moduko esperientzia izan da. Bestalde, Juan Mari Errastiri ere eskertu nahi diot bizikletak garraiatzen emandako laguntzagatik.

• Zer egingo da bizikleta horiekin?

Lehenik eta behin Mozambikera bialdu aurretik, konpondu behar direnak konpondu egingo dituzte gero lehenbailehen bialtzeko.



Bizikletak konpondu eta Mozambikera bialduko dituzte



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

• JUANTXO URDAITEGIA	79 75 42
• MARI KARMEN OINETAKO DENDA	79 59 85
• IRUDI ILEAPAINDEGIA	79 80 90
• MIREIA ARRAINDEGIA	79 31 59
• ARAMAIO OKINDEGIA	79 64 87
• LEINTZ-ROSI	79 78 63
• ERREKABARREN FRUITATEGIA	79 96 43

Jon Sarasuak bi liburu plazaratuko ditu Durangoko azokan

□ “Zozoak beleari” liburua Andoni Egañarekin batera idatzi du

Datorren astebukaera honetan ospatuko den Durangoko azokan Jon Sarasuaren izena daramaten bi liburu kaleratuko dira: “Zozoak beleari” Andoni Egañarekin batera idatzi duena eta “Biziaren hizkuntzaz”.

Bi liburuak batera argitaratzea kasualitate hutsa izan dela dio Jonek. Hainbat liburutan kolaboratu duen arren, liburu bat sinatzen duen lehen aldia da “eta kasualitatez biak udazken berean aterara dira”.

“Zozoak beleari” liburua Andoni Egaña eta bien artean egindako gutun trukaketa bat da. Alberdania etxeak jarri du kalean 240 orrialde dituen liburua.


Hasi, Jon Guatemalan dela hasten da liburua. Andonik han zer moduz dabilen jakin nahirik idazten dio. Jonek hango berri eman eta hemengoetat galdetzen dio, eta gutunekin batera narrazio batzuk ere azaltzen dira. Jonen azalpenetan, “liburua bertsolaritzaren inguruko gaiek

eta beste hainbat gaien inguruan ditugun pentsamenduek osatzen dute: kultura, mundua, euskalgintza... pentsamendu liburua da neurri batean”. Tarteka literatura eta poesia ere nahasten dira. Hitz batean esateko “saltsa bat” dela esanez bukatzen du Jonek.

Elkarrizketa liburua

“Biziaren hizkuntzaz” elkarrizketa liburua da. Jose Maria Sanchez Carrión “Txepetx” soziolinguistari eginiko elkarrizketa luzea da, 11 kapitulutan banatutakoa. Hizkuntzaren bizitzari buruzko zientziaren eta pentsamenduaren hainbat gogoeta egiten da bertan.

Jonen ustez, Txepetx da soziolinguistikan maixu, hizkuntzaren bizitzari buruzko zientzia eta pentsamenduan aportazio bereziena egiten duena. Txepetx Andaluzian jaioakoa bada ere, eta ondoren nomada ibilitakoa, Euskal



Herrira etorri eta euskaraz ikasi zuen. Gaur egun Menorcan bizi da, eta Jonek bertan pasa zituen lau egun; zinta pilo bat grabatu eta hortik osatu du liburua.

Liburu hau idaztearen proposamena Bilboko “Zenbat gara” elkarteak “Gara” argitaldetxeak egin zion. Argitaletxe honek kaleratuko duen lehen liburua izango da.

Liburuek lan izugarria suposatu arren, buruan zituen ideiak eta pentsamenduak kapora ateratzeko aukera eman diote Sarasuari.

Leintzgainen inaugurazioa

Almen ikastolak Galartzako abatetxean martxan jarri duen Leintzgain natur etxea joan den zapatuan inauguratu ondoren, astelehenean bertan, martxan jarri zen lehen ikasle taldearekin. Aurrerantzean beti izango da talderen bat bertan, besteak beste, natura, Euskal ohitura, artisautza, etabar landuko dituzte hortara egokitutako etxean. Orain arte izan ez duen bizitasuna hartuko du Galartzako elizateak.

Auzoetan konponketak

Bolinatik Arientzarako bideko pistan, ura pasatzen zen zatian egokitze lanak burutu dira. Zati horretan ura jaso da eta aurrerantzean ur gutxiago pilatuko da bertan, oinezkoendako pasabide txukunagoa geldituz. Azatan, berriz, abatetxearen eskumaldeko espolioan urarendako areka egin da. Era berean, Urtikua baserrira doan bidean ere areka egiteaz gain asfaltoa ere bota da.

Lurperatzaile lanposturako probak hasita

Astelehenean egin zuten lehen azterketa lurperatzaile lanposturako aurkeztu diren lau lagunek. Horien artean, atxabaltar bi eta beste gasteiztar bi daude. Lurperatzaile lanari buruzko azterketa teorikoa izan zen. Bigarren azterketa, abenduaren 10ean dutena, loragintzari, igeltseritzari... buruzko azterketa teorikoa izango da eta bi probak gairatzen dituztenak azterketa teorikoa egingo dute.

EGUZKI GRAF
inprimategia

ARETXABALETA

Industrialdea F-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792944

URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

Arantzazu Loidi

Bertso txapelketako epaimahaikidea

Abenduaren 14an Donostiako belodromoan erabakiko da Euskal Herriko bertsolari txapelketako txapela nork jantziko duen. Arantzazu Loidi txapelketako epaimahaian dago, bere iritziz "epaimahaikide izatea gogorra da, baina lan hori ere norbaitek egin behar du eta emaitza talde lana da azken finean".

• Epaimahaikide izateko prestaketa berezirik egin behar da?

Epaimahaia bederatzi lagunek osatzen dugu guztira, horietatik bi ordezkariak dira. Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako ordezkariak daude. Geure artean bilera asko egin ditugu, bai lehenago eta baita txapelketan zehar ere. Bilera horietan kriterioak eztabaibatzen ditugu, ariketak egin, kasu desberdinetan nola jokatu... planteatzen da.

• Puntuazioa ematerakoan zer hartzen da kontutan?

Puntuazioa oso bapatekoa da. Alde batetik, finkatuta dauden kriterioak erabiltzen dira. Beste aldetik alde subjektiboagoa dago, norberaren iritzia.

Emaitza talde lana da, bakoitzak bere puntuazioa ematen du eta azkenean kaleratzen dena denon emaitza da.

• Horrelako lan batean parte hartzen duzun lehen aldia da?

Euskal Herriko txapelketako epaimahaian parte hartu dudana lehen aldia da. Gipuzkoako txapelketan orain bi urte epaimahaian egon nintzen eta aurretik eskolarteko txapelketan ere egon naiz.

• Kritika asko entzun da txapelketen inguruan. Zer daukazu esateko?

Epaitzeko formularik egokienaren bila ahalegin asko egin da, baina



Arantzazu Loidi

oraindik ez da formula hoberik bilatu. Norbaitek lan hori egin behar du eta elkarte bertsolari eta bertsozale guztiok modu egoki bat bilatzen ahalegindu behar dugu.

• Zu zeu txapelketaren alde edo kontra zaude?

Alde onak eta txarrak ditu. Jendea gustatzen zaizkio txapelketak. Ni neuk ere txapelketan parte hartu izan dut eta aberasgarria dela uste dut. Azken finean bertsolariendako aukera pertsonala da. Hori bai, hobetzeko moduak bilatu behar dira.

Osasun zentruak 15 urte

Abenduaren 13an Aretxabaletan osasun zentrua jarri zela 15 urte beteko dira. Urte guzti hauetan aldaketa asko eman da osasun zentruan, pertsonalean, funtzionamenduan, zentrua informatizatu... Zazpi langilekin ireki zen osasun zentrua orain 15 urte: mediku bi, koordinatzailea, matrona, praktikantea, auxiliarra eta administrari batekin. Horien artean bik jarraitzen dute gaur egun bertan, Arantxa Eguren administrariak eta Clemente Domingo praktikanteak. Pertsonal aldetik beraz aldaketa haundiak eman dira, lantaldea ere nabarmen gehitu dela esan beharra dago. Gaur egun 11 langilek osatzen dute plantila: lau erizain, hiru sendagile, matrona, pediatra, eta administrari bik. Osasun zentruaren ordutegiari dagokionez, astelehenetik ostiralera 8etatik 5etara egoten dela zabalik aipatu behar da. Ordutegi horretatik kanpo urgentziatzeko telefonora deitu behar da 77 10 43 telefonora, hain zuzen ere.

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

IBARRA ESTANKOA



Tabakoa eta ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

Martini

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 96 66
Fax: 77 10 33

Eskopeteroen kalte

Artikulu honen helburua ez da Ehiza edo Ehiztariak zalantzan ipintzea, ez baitut uste gure lurraldetako ekologiarri kalte gehiegi egiten diotenik, beraz, honen inguruan ez nuke gaizki ulerturik eduki nahi. Gaurkoan eskopeteroak salatu nahi nituzke, *todo lo que vuela a la cazuela!* esaldi famatuaren jarraitzaile direnak hain zuzen ere.



Sai eta putreek hildako animaliak jaten dituzte

Duela hamabost bat egun Arantzazu inguruko mendietan bizpariu sai edo putre bota zituztela aditu dut eta berauekin batera baita zapelaitzen bat ere. Hegazti hauek babesturik daudenez legea hautsi da kasu hauetan, eta hau salatzekoa da noski.

Izan ere legeek arrazoi sakona dute barrenean eta horregatik ezartzen dira. Saiak eta gainerantzeko sarraskijale eta harrapakariek ongi definituriko funtzioa dute gure mendiotan eta hauek akatzean bertako oreka hautsi egiten da.

Zapelaitza eta saia

Zapelaitza (atxabaltan aepardua) gazteleraz ratonero deitzen zaio eta benetan izen oso egokia du, izan ere gure inguruko zelai eta soroetan bizi

diren sagu, satitsu eta satorrek osatzen baitute bere dieta. Ez da beraz inolaz ere kaltegarria, bai aldiz oso onuragarria.

Sai edo putrearekin beste horrenbeste gertatzen da. Hildako animaliak jaten dituelarik, mendietako "barrendero" lanetan aritzen dela esan dezakegu, gure inguruan infekzio-foko izan daitekeen gorpu oro desagertaraziaz. Ez nabil gezurretan saiek garrantzi ekologikoaz gain garrantzi higieniko nabaria ere badutela esaten badut.

Aspaldian ordea, prentsan sarri agertu dira saiek artaldeei egindako erasoak. Oraindik inoiz ez da frogatu horrelakorik gertatu izan denik. Uda honetan guztiok ikusi ahal izan ditugu saiak ardi bati erasoka erakusten zizkiguten argazkiak... Montaje ederra

jaunak, Oscar bila ote zabiltzaten pentsatzen hasia nago. Nondik sortu da baina hegaztion aurka tiro egiteko kanpaina hau?

Zoritxarrez, telebistak edo prentsak esaten diona osorik sinesten du jendeak, eta mendian putrea edo beste edozein harrapakariri tiro egiterakoan ekintza ona egin duenaren uste osoa izaten du. Eta inori ez zaio axola.

Jarrai bezate ba eskopeteroek lumak edo ileak dituen edozein animaliarri tiro egiten eta bide batez legea errespetatzen duten ehiztariei izen txarra ematen. Hala ba, Gora Euskadi eta danok pozik.

Mikel Arroiabe

G U R E A

*taberna
jatetxea*

Durana kalea
Tfnoa: 79 20 64

**AMETS
TABERNA**

Iparragirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta

**PAGALDAI
Opari denda**

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETA

ARGAZKI

UrKiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA



Jesus Mari Herrasti Gizabidea Fundazioko lehendakaria

Joan den astean ospatu zituen Gizabidea Fundazioak "On Jose Maria Arizmendiarrrietaren" omenez XXI. topaketak. Hiru hitzaldi antolatu ziren bertan, Pedro Hernandez, Jon Sarasua eta Antonio Cancelok eman zituztenak. Jesus Mari Herrastirekin, Gizabidea Fundazioko lehendakaria, hitzaldi horietatik ateratako inpresio eta Gizabidea Fundazioaren inguruan berba egin dugu.

• **Gizabidea Fundazioko lehendakaria izanik, XXI. topaketen inguruan egin diren hiru hitzaldietatik zer ondorio atera duzu?**

Nik uste dut, hiru konferentziak batera jarrita, gure fundazioak duen modeloaren ereduak izan zirela eta nondik jarraitu behar dugun erreflexiorako bidea zabaldu zutela.

Hiru hitzaldiak oso interesgarriak iruditu zitzaizkidan. Pedro Hernandezek hezkuntzako baloreak duten garrantziaz berba egin zuen eta hauek nola jorratu behar diren. Jon Sarasuaren emanaldia nahiko esperimetala izan zen, euskaraz eta oso originala. Gaia gazte baten ikuspuntutik erreflejatzen zen, baina heldutasun haundi batekin. Hirugarren hitzaldia, berriz, Antonio Cancelo MCCko lehendakariarena oso ondo sistematizatuta zegoela iruditu zitzaidan. Bizitza honetan pertsona batek zoriotsu izateko behar dituen baldintzen inguruan aritu zen.

• **Hitzaldiak Gizabidea fundazioaren ereduak izan zirela aipatu duzu. Zein da bere funtzioa?**

Gizabidea fundazioa hemengo kooperatiba eta enpresa pribatu batzuen eskutik sortu zen 1980an. Hezkuntzarako fondo garrantzitsua bideratu izan dute hauek eta laguntza



“Kooperatiben munduan hezkuntza hanka garrantzitsua da eta hortan lan egin behar du Gizabidea Fundazioak”

horiek bideratzeko sortu zen fundazioa, hain zuzen ere. Jarraitzen duen politikaren arabera dirulaguntzak ikerketa, patrimonio eta proiektu desberdinetara bideratzea da bere helburua.

Gure laguntzak, gero eta gehiago, inbertsioetara bideratuko dira, proiektu berrietara. Era berean aldaketa berrietara egokituz joan beharko dugu.

• **Nola baloratuko zenituzke fundazioan egin dituzun zazpi urteak?**

Hemengo hezkuntz zentruak orokorrean nahiko ondo doaz eta alde horretatik ez da lan zaila izan. Gure lana hezkuntza mailan laguntzea izan da eta horretan zati txiki bat ipini dugu.

• **Etorkizunean zein politika jarraituko du fundazioak?**

Gure politikari jarraituko diogu, hezkuntzak gizarte honen etorkizunerako duen garrantzia kontutan hartuta, proiektu berriei, ikerketei... laguntza emanez. Ildo horretan fundazioak beti hain kontutan izan dituen baloreak daude, balore horien inguruan lanean hasi zen eta hortan jarraituko dugu. Bestalde, bailaran unibertsitate bat daukagula kontutan izanik, hau "hanka" garrantzitsua da kooperatiben mundurako eta hortan lan egin behar du fundazioak.



TABERNA-BERRI JATETXEA

Durana, 26
Tfnoa: 79 20 67
ARETXABALETA

ARETXABALETA ITURGINTZA

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

Maritxu Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA

San Martin San Jose kofradia

mende bat baino gehiago gure artean

Mende bat baino gehiago darama kofradiak gure herrian. 1855eko urtarrilaren 21ean fundatu zen San Jose kofradia eta dokumentu hau da kofradiaren inguruan dagoen idatzirik zaharrena. Egun San Martin-San Jose kofradia izenaz ezagutzen da, kofradia biek bat egin baitzuten 1969. urtean. Datorren abenduaren 8an batzar orokorra egingo da, bertan besteak beste aurten sortu diren estatutuen berri emango da.

San Martin-San Jose kofradia Sondo sustraiturik dago gure herrian. Gaur egun 4.620 bazkide izanik, ia herri gehiena dago bertan izen emanda. Gainera, urteko batzar orokorretara azaltzen den lagun kopurua ere kontutan hartzekoa da, 200etik gorakoa izaten baita.

1855. urteko urtarrilaren 21ean fundatu zenetik, borondatezko giza lan garrantzitsua egin da kofradian, beti ere, hildakoaren familiari laguntza ekonomikoa eta morala emanez.

Aspaldiko kofradiak

Kofradiak aldaketa aipagarriak izan ditu, lehen kofrade haiek lau erriel ordaindu behar izan zutenetik kofradiako partaide egiteko.

Lehen familia bakoitzak ordaindu behar izaten zuen diru kopurua adieraziz sobre bat banatzen zen etxez-etxe, "kandeleru" izatea tokatu zitzaionari ere modu honetan bialtzen zitzaion abixua. Ondoren familia bakoitzetik pertsona batek joan behar izaten zuen hiletara zegokion diru kopurua entregatzera. Horrela gastu ekonomikoei aurre egitea lortzen zen eta ez zegoen defizitrik.

Migel Igartuak lau urte egin zituen kofradiako zuzendaritzan. 80. hamarkadan izan zen hau eta orduan ere bazegoen gaur egunekoaz konparatuz desberdintasunik. "Hildakoen senitartekoei karga handia kentzen zion kofradiak, azaltzen du, familia abadearekin



Gaur egungo zuzendaritza batzordea

“Lehen familia bakoitzeko kide batek joan behar izaten zuen hiletara zegokion diru kopurua ematera”

harremanetan jartzen zen hileta ordua adosteko, gainontzeko guztia kofradiak egiten zuen: medikuari deitu, ehorzleari, eskelak ipini... hildakoa ere geuk sartzen genuen kaxan”. Azken hau ez du gaur egun kofradiak egiten, zerbitzua egoera berrietara egokitu da.

Kofradiaren zerbitzuak

San Martin-San Jose kofradiak urteetan zehar hain garrantzitsua izan den borondatezko lanari jarraipena eman dio. Gaur egun, bazkide baten ehorzketa eta gorpuaren garraio gastuei aurre egitea eta hildakoaren senitartekoei edo eskubidedunei laguntza ematea du helburu. Arlo honetan, Jose Antonio

Unzalu kofradiako lehendakariak adierazi digunez, "familiari laguntza morala ematea da garrantzitsua eta ez zaio alderdi ekonomikoari horrenbeste begiratzen".

Kofradiak honako zerbitzuak eskaintzen ditu: hil kotxea, hileta, bederatzihurrena eta urteurrena, hiru taxi senitartekoentzat (horien artean bi kofradiako zuzendaritzako kideak) eta eskelak jartzea (herrian zortzi guztira). Era berean familiaria behar den informazio eta laguntza haundiena ematen zaio, aholkua, zer egin behar duen, nora deitu...

Abuztuan oporrak hartzen ditu kofradiak eta Arrasateko kofradiak eramaten du zerbitzua. Tramite guztiak, berriz, Arrasate funerariaren bidez egiten dira.

Aurten estatutuak sortu

Erakundea formalki legalizatzeak aurtengo urtean kofradiako estatutuak egin dira. Lan horretaz Jose Antonio Unzalu kofradiako lehendakaria arduratu da. Bere iritziz pausu garrantzitsua suposatu du erakundea ofizialki eratzeak, modu honetan elkartearen baldintza eta arauak idatzita egongo direlako aurrerantzean.

Estatutuetan jasotzen den moduan, kofradiaren zerbitzua Aretxabaleta eta inguruko auzo eta elizateetara mugatzen da. "Horregatik Aretxabaletan izen emanda egotea beharrezkoa da". Kanpoan hiltzen diren kasuetan, berriz, zerbitzua hobeto aztertzea nahi da.

Erakundea zuzendaritza batzordeak ordezkatzen du, eta hau lehendakariak, lehendakari ordeak, idazkariak, diruzainak eta lau bokalek osatuko dute. Batzordeko berriztapena, berriz, urtero egiten da bakoitzean lau kide aldatuz, hauek bi urtez izango dira batzordekide.

Abenduaren 8an urteko batzar orokorra egingo du kofradiak, bertan zuzendaritza taldearen berriztapena, kontuen balantzea, ekintza txostena... aztertzeaz gain, estatutuen berri ere emango da. Azken hauek batzar orokorraren erabakiz

aldatu ahal izango dira.

Zerbitzuaren jarraipena

Hiltzea garestia dela esan daiteke, inguruko kofradietatik jaso ditugun datuen arabera, hildakoaren kostua gutxienez 300.000 pta.tik gorakoa da. Kostu ekonomiko horri aurre egiteko eta familiaria laguntza emateko sortu ziren kofradiak. San Martin-San Jose kofradian esaterako hileko kuota 1.000 pezetakoa da. Sartzerakoan zenbat eta nagusiagoa denak, orduan eta kuota haundiagoa ordaindu beharko du, hiltzeko arriskua haundiagoa baita eta 80 urtetik gorakoek ezingo dira

kofradiako bazkide egin

Dena dela, gaur egun kofradia asko dago eta bakoitzak bere arauak izango ditu, pribatuak batzuk eta herritarren borondatez aurrera atera direnak besteak, gure herrikoak esaterako.

Kofradian daudenek bizirik iraun duen erakunde honen eta herri mailan eskaini duen zerbitzuaren garrantzia azpimarratzen dute. Etorkizunean borondatezko lan horretan jarraituko dutenen lana ilusioz eta gogoz betetakoa izatea nahiko lukete; herriari eta familiaria batez ere, hain latzak diren uneetan laguntza haundiena eskainiz.

Abenduaren 8an batzar orokorra egingo du kofradiak, bertan, besteak beste, aurten sortu diren estatutuen berri emango da"

Jose Antonio Unzalu

Kofradiako lehendakaria


Bi urte bete ondoren aurten irtengo du kofradiako batzordetik Jose Antonio Unzalu. Pozik azaltzen da batzordeak bete duen lanaz. Beste lan batzuek gain aurten estatutuak egiteaz arduratu da.

ZER NOLAKO ESPERIENTZIA IZAN DA KOFRADIAN EGIN DITUZUN BI URTE HAUTAKOAK?

Oso aberasgarria izan dela uste dut eta pozik nago burutu dugun lanaz. Ilusio guztiaz lan egiten saiatu gara guztiok eta familiei gure laguntzarik haundiena eman nahi izan diogu.

ESTATUTUAK ERE SORTU DIRA. ZER SUPOSATUKO DU HONEK?

Sartu nintzenezan, aurreko batzordekoek estatutoak egin beharra zegoela esan zidaten. Aurten ni arduratu naiz hauek egiteaz. Erakundea ofizialki eratu



da eta beronen arauak eta funtzionamendua idatzirik izango dugu aurrerantzean.

AURRERA BEGIRA NOLA JARRAITU BEHARKO LUKE KOFRADIAK?

Hurrengo urteetan ere orain moduan kofradiak borondatezko lan garrantzitsu hau egiten jarrai dezan nahi nuke. Horrenbeste urtetan herritarren artean sortu den laguntasunak bere horretan jarraitu beharko luke.

Deba Garaiko herrien arteko III. olinpiada

Deba Garaiko kirol zerbitzuak hirugarren aldiz antolatuko du aurten Deba Garaiko kuadrilen arteko olinpiada. Txapelketan, Deba Garaiko herri guztietako koadrilek har dezakete parte, Aretxabaletatik bi koadrilak. Koadrila gehiago aurkeztuz gero, herrian bertan egingo litzateke eliminatoriako fasea abenduaren 16tik 22ra bitartean. Talde bakoitza gutxienez zortzi lagunez osatuko da eta ondoren aipatzen diren kirol guztietan jokatu beharko dute: abenduaren 26an Arrasaten saskibaloia txapelketa; abenduaren 27an Aretxabaletan futbol-7a; abenduaren 29an Oñatin eskubaloia eta azkenik, Elgetan bolo eta eskuz binakako txapelketa abenduaren 30ean. Talde bakoitzak 4.000 pezeta ordaindu beharko du izen emateko, honetarako azken eguna abenduaren 19 izanik. Sari ederrak egongo dira lehenengo hiru talde sailkatuentzat: 1. go saria 100.000 pta; 2.a 50.000 eta 3.a 25.000 pta.

Manaslu Iñurrategi anaien neguko helburua

□ **Abenduaren 12an abiatuko dira Himalayara eta urtarrilaren bigarren hamabostaldian saiatuko dira tontorra egiten.**

Esperientzia berri baten aurrean izango ditugu aurki Felix eta Alberto Iñurrategi, aurrekoetan ez moduan neguko espedizioa osatuko dute anaiek Josu Bereziartuarekin batera. Helburua: Manaslu 8.163 metrotako mendia.

Abenduaren 12an irtengo dute Nepalerrantz eta otsailaren erdialderako ipinita dute bueltarako data. Bi hilabete horietarako egitaraua azaldu digu Felixek: "urtea amaitu baino lehen kanpo basea ipini eta urtarrileko bigarren hamabostaldian tontorreko saiakera egiteko asmoa dugu".

Neguan espedizio gutxi

Espedizioa nahiko esperimentalak izango da, lehenengo aldiz neguan egingo dutelako eta alde horretatik "esperientzia eta informazio zehatzik ez dutelako". "Neguan espedizio gutxi joaten da Himalayara, gainera gehienak espedizio haundiak izaten dira, txikiak oso gutxi" gaineratu du Felixek. Neguak zikuak eta haize gogorrekoak izaten ei dira Himalayan, nahiz eta urtarriletik aurrera elurteak

izaten diren. Alde horretatik esperientzia berria probatu nahi izan dute eta neguan Himalayako mendiek zein aurpegi erakusten duten ikusi.

Igoera, bide arruntetik, ipar aldetik egingo dute, tartean "Al filo de lo imposible" programarako grabaketa egingo dutenez, "ez ditugu gauzak konplikatu nahi izan". Bestalde, badirudi mendiak teknikoki ez duela zailtasun haundirik igotzeko eta 8.000ko mendietatik samurrenetarikoan artean dagoela. Hala ere, abalantxak asko gertatzen diren mendia da.

Udaberrian Dhaulagiri

Proiektuak ez dira falta bi anaien buruetan eta ez daude geldi egoteko, gainera. Datorren udaberrian Dhaulagiri, beste zortzi milako bat, egiteko asmoa dute eta udazkenean, berriz, Tibet aldeko beste mendi bat. Azken hau zortzi mila azpiko mendia izan arren, behin bakarrik igo da. Aipatutako hiru mendietan "Al filo de lo imposible" programarako grabaketa lanak egingo dituzte.

EXTRA

Deba Garaiko kazeta

Astearte, ostegun eta larunbatero kioskoetan salgai.

Nafarroa etorbidea, 23
218 postakutxatila
Tel: 79 82 68
Fax: 79 43 03

JOSU HARATEGIA


Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

MEMESA S.L.

Industriaren alde


Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30



Aholkularitza

Basabe Industrialdea
Aretxabaleta

Tfnoak: 79 88 75
79 75 99

Josu Lasagabaster

“Gazteen artean pelotarekiko afizio haundia sortu da herrian”

Gazte gaztetatik eman zizkion pelotari lehen astinduak. Bederatzi urte zituela pelotan hasi eta 17 urtekin gogoz eta ilusioz jarraitzen du kirol honetan.

Momentu honetan Baque torneoa jokatzen hasi berri da.

• Nola gogoratzen dituzu pelotan hasi zineneko hasierako urteak?

Bederatzi urte nituela hasi nintzen pelotan. Koadrilan pelotan egiteko ohitura genuen eta Larrinuko elizpeko frontoia ere sarritan erabiltzen genuen pelotan egiteko. Lagunen artean afizioa egon da pelotarako eta beharbada horregatik jarraitzen dugu gaur egun ere pelotan.

• Momentu honetan Baque torneoa jokatzen ari zara. Ze nolako txapelketa da?

Nahiko maila haundiko torneoa da. Oraintxe hasi dugu eta lehenengo partidua irabazi egin dut behintzat. Deba harroako herriak lehiatuko gara lehenik eta gero klasifikatzen direnek Bizkaiko taldeen aurka jokatuko dute.

• Herri mailako pelota nola ikusten duzu?

Azken urteetan pelotarekiko afizio haundia sortu da herrian. Iturrigorri frontoia pelotari gazteez



“Pelotan jarraitzeko asko gustatu behar zaizu eta ezin da obligazioz jarraitu”

beteta egoten da eta astebukaerero jokatzen dira partidua. Arlo horretan Jose San Migelek egin duen lana izugarria izan da gazteengan afizioa sortu du eta. Gazte eta nagusien entrenamenduak berak zuzentzen ditu eta baita

txapelketak antolatu ere.

• Zer botatzen duzu faltan?

Iturrigorri frontoiak erakusten duen egoera ez da batere egokia, neguan hotz izugarria egiten du eta euria sartzen da. Udalak hau izteko asmoa erakutsi du, eta honek nabarmen hobetuko du frontoiaren egoera. Bestalde, frontoia frontis eta lurra onak ditu jokatzeko.

• Pelota kirol gogorra dela esaten da. Non ikusten duzu zuk gogortasun hori?

Batez ere eskuak sufritzen dute pelotan. Eskuak sarri mintzen dira eta ezin duzu jokatu. Eskuak ondo zaindu behar dira jokoa eskuekin egiten baita. Egia da pelota kirol gogorra dela, horregatik izten du horrenbeste jende. Jarraitzeko benetan gustatu behar zaizu eta ezin da obligazioz jarraitu.

• Abenduaren 13an lau eta erdiko banakako pelota txapelketa finala jokatuko da. Zein da zure favorittoa?

Txapelketa hasieratik jarraitu dut, Retegi oso ondo ibili da, baina zaila da favorittoa zein izango den esatea. Niri pertsonalki Retegi bera asko gustatzen zait. Pelotari ona izan da eta oraindik ere maila ona erakusten du. Berak irabaztea gustatuko litzaidake.

Ezkutu
TABERNA

Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tfnoa: 79 92 01

Izozkiteki-Gozotegia
IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABALETA



MAPFRE

Aseguroak

Errekabarren, 3
Tfnoa: 77 11 76



“Bizikletan ibiltzea eta eskiatzea gustatzen zait”

Dorleta taberna zabaldu zuenetik, orain dela 16 urte, bertan lan egin du Jose Antoniok. Gasteizen jaio, gero Gatzagan eta Eskoriaztan bizi eta azken 12 urtetan Aretxabaletan bizi da. Gaurkoan berak erantzun dizkigu atal honetako galderatxoak.

• Zer du ona eta zer txarra tabernako lanak?

Ona jendearekin duzun harremana eta txarra, berriz, ordu asko sartu beharra.

• Noiz etortzen da jende gehien? Astebukaeretan txikiteo orduetan, eta bostetatik aurrera.

• Noiz izten duzu taberna? Astegunetan 12ak inguruan eta astebukaeretan ordu bietan.

• Txikiteoan zer edaten da gehien?

Rioja ardoa.

• Zelakoak dira Portasoleko txikiteroak?

Gustora egoten naiz beraiekin, animatuak dira, kantatu ere egiten dute batzuetan.

• Tabernak izteko ordutegiari zer deritzozu?

Ondo iruditzen zait, gainera hemen ez da jende gazte asko ibiltzen.

• Bizitzeko leku egokia? Aretxabaleta gustatzen zait.

• Denbora librean zer egiten duzu?

Bizikletan ibili eta ahal dudanean eskiatzera joaten naiz.

• Mendiko bizikleta edo bidekoa erabiltzen duzu?

Udan bidekoa neguan mendikoa.

• Eta eskiatzera nora joaten zara?

Formigalera, normalean.

• Kirol garestia dela uste duzu? Elkarteek antolatutako astebukaeretak irteerak ez dira hain garestiak. Familia osoa joan ezker garesti irtetzen du, baina ez pertsona bakar batentzat.

• Zer gosaltzen duzu? Kafea zerealekin eta fruta.

• Zerk ematen dizu amorrua?

Gezurra esateak.

• Zer da egin behar duzula esan baina egin ez duzuna?

Gauza asko. Agian Rocosas mendikatera eskiatzera joatea.

• Tabernan egonda noiz botatzen dituzu parrandak?

Hemendik irten eta gero, nekatuta ez banago behintzat.

• Non ibiltzen zara?

Aretxabaletan, Arrasaten, batzutan Gasteizera ere joan izan gara.

• Zer iruditzen zaizu dendak abenduaren 6an zabalitzea?

Txarto. Alde batetik langileentzat eta baita denda txikientzat ere kaltea da.

• Zer egingo zenuke orain 15 egunetako oporrak izanez?

Eskiatzera joango nintzateke.

• Telebistako zein programa ikusten duzu gustora eta zein ez hain gustora?

Notiziak gustatzen zaizkit. Telenobela eta konkurtsoak ez zaizkit gustatzen.

• Zelakoa da zure izakera?

Nahiko lasaia naiz, baina jenio txarra daukat, prontoak izaten ditut.

• Gaurkoan ala biharkoan pentsatu?

Bietan, gaur ondo pasatu, baina beti biharkoan ere pentsatuta.


KOMIKIA

EGUNEKOTUAK GAUDE JADA

Mikel Arroiabe

AFRIKAN LEHORTE LATZA JAKIN ETA SEGITUAN AGENTZIARA DEITU NUEN OPORRAK HARTURIK GOGUAN: "HARA JUAN NAHI DUT!" AHAL BADA ABUZTUAN, ERRETRATATZEKO MAKINA EZ DUT FALTAKO KOLKUAN

(Les Mecaniciens)



U

dazkenak
ere badu bere en-
kantua eta jendeari
gustatzen zaio urte
sasoi honetan kinto

afariak antolatzea. Astebukaerak kinto afariz bete dira azken aldian, 69koak izan ziren aurreko asteburuan ospatu zutenak. Baina ia 2000. urtearen ateetan gaudenean, goiko erretratuak mende hasieran jaiotako kinto afaria erakusten digu. Argazkia bera ez da hain zaharra 1954. urtekoa, baina bertan agertzen den koadrila mende hasierako lehen hamarkadan jaiotakoa da. 1930.ean gerra aurretik kinto izan ziren mutilak ageri dira erretratuan, "21 urte genituen orduan" eta Jose Anastasio Jauregik ez du ezer berezirik egin zutenik gogoratzen. Santa Ageda mutilen ohiturak, plazan dantzatzea, tentaixa igotzea... gero berreskuratutako usadioak ei dira.

Argazkian: **Paulo Errasti, Leon Zugasti, Prudencio Ezcurra, Francisco Aspe, Angel Gago, Francisco Leibar, Maximo Lasagabaster, Antonio Garai, (frailea, bedoñarra, Indiarra joan zen ez da berriz bueltatu), Bonifacio Akixu, Angel Jausoro, Jose Jauregi, Roman Olabe, Ladis del Teso (gurpil aulkian).** Gaur egun lau bakarrik bizi dira: **Leon Zugasti Arrasten, Pablo Errasti, Angel Gago eta Jose Jauregi Aretxabaletan.**



Argazkia: Jose Jauregi

IRIARTE

Umeen
denda



Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 10 96

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
ARETXABALETA

Artano
Taberna

Herriko Plaza
ARETXABALETA

IZOTZ
Taberna

Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65
Aretxabaleta



**FELIX
PAGALDAY**

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33
Etxekoa: 79 42 56

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28



**BASTER-ALDE
JATETXEA**

SASOIKO
JAKIAK
GIRO
ONENEAN
Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETA

Astebukaera



Motzak izan ditugu abuztuko oporrak bukatu zirenetik astebukaerak. Egutegian domekak bakarrik izan ditugu gorri kolorekoak. Jai bakar bat ere ez, baina astebukaera honetan egun bat gehiago izango dugu jai, abuztutik hona lehenengo jai. Astebukaera honetan Durangoko liburu eta diska azoka ospatuko da. Gure hizkuntzak batzuen gogoaren kontra bizirik jarraitzen duela ikusteko aukera izango da bertan. Egun hauetarako ohikoak bihurtzen dira liburuen aurkezpenak eta kasu honetan atxabaltar batek idatzitako liburuak egongo dira bertan. **Jon Sarasuak** "Biziaren hizkuntzak" liburua idatzi du eta hori gutxi balitz "Zozoak beleari" Andoni Egañarekin batera idatzitako liburua ere

plazaratuko du Durangoko azokan.

Garai batean bera izaten genuen bertso txapelketetan partaide. Oraingoan **Arantzazu Loidi** dugu Euskal Herriko bertso txapelketako partaide, baina ez bertotan, epaile lanetan baino. Zorte ona opa diogu futboleko arbitroei pasatzen zaiena ez gertatzeko.

Kulturarekin jarraituz, Extra kazetako Atxabaltako korrespontsala **Amaia Gastañaga** dela esan behar da, bera arduratzen da herriko kronikaz. Ea gu beste kontutaz enteratzen den.

Kultura utzi eta osasun kontuetara pasatuz, herriko osasun zentruak 15 urte beteko ditu abenduan. Hasiera hasieratik lanean hasitako langile bik bakarrik jarraitzen dute gaur egun bertan: **Arantxa Eguren** eta **Clemente Domingo**. Zorionez ni gutxitan izan naiz osasun zentruan (orain arte behintzat) konturatu ere ez naiz egin horrebesteko mugimendua egon denik.

Bukatzeke Udaleko kultura sailak atera duen Negu Kulturala 97 egitarauaren kontraportadako argazkiko top-modelak **Endika Martin** eta **Markel Oskoz** dira. Batzuk gazte hasten dira influentzia trafikoa erabiltzen.

Eta badakizue ahal duzuenok eman bueltatxo bat Durangoko azokatik, eta esaten den moduan "jarri ezazue liburu bat zeuen bizitzan".

A R E T X A Z O K A

LANA

- Emakume bat behar dut etxeke lanak egin eta umea zaintzeko. Tfnoa: 76 36 21. (arratsaldeko 8etatik 9etara).
- Emakume bat behar da ume bi zaindu eta etxeke lanak egiteko. 79 65 48 (arratsaldeko 7etatik gaueko 10etara deitu).
- Umeak zaindu eta etxeke lanak egiteko pertsona bat behar da. Harremanetarako deitu 77 11 85 telefonora.
- Ingeles, gaztelera eta euskerazko itzulpenak egiteko pertsona bat behar da. Tfnoa: 79 25 75.

ETXEBIZITZA

- Pareja batek etxebizitza erosiko luke Portasolen. 79 74 62. Mari Josegatik galdetu.
- Urtarrilaz geroztik Zuhaitz taberna alokatzen da Leintz Gatzagan. 71 41 21.
- Pisu bat alokatuko nuke. 71 42 86 Jabierregatik galdetu.
- Zeramika tailerra ipintzeko lokala alokatu edo antzeko lanbidea duen norbaitekin banatuko nuke. 71 42 86. (Jabier).

DENETARIK


- Adornoeko afiela aurkitu zen jubilatuen egunean. Interesatua udaletxeko gizarte zerbitzutik pasa dadila.

Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.

AIRBAG

ZUZENDARIA: Juanma Bajo Ulloa.

AKTOREAK: Karra Elejalde, Fernando Guillen-Cuervo, Alberto San Juan, Maria de Medeiros, Manuel Manquina, Karlos Arguiñano, Luis Cuenca, Rosa María Sardá, Pilar Bardem, Francisco Rabal.



Juantxoren bizitza perfektua da. Bere familia, Euskal Herriko goi burgesiakoa izanik, goi mailako gizartean bizitzeko baldintza guztiak izan ditu: ikasketak, lana eta gainera emaztegai polita eta aberatsa. Baina azken finean Juantxo ergel haundi bat da. Hala ere, bizitzak mundua ergelez beteta dagoela erakusten digu eta garaia dela hau aldatzen hasteko.

Bere soltero despedidan Pako eta Konradin bere bi lagunekin batera, bere konpromezuko erastuna galtzen du, 30 milioitako balorea duena.

Eraztuna Joao Villambrosa mafioso arriskutsu eta ipar Espainiako putetxe guztien jabea den baten eskuetan dagoela konturatuko dira.

Juantxo, Pako eta Konradin eraztunaren bila arituko dira. Orduan beste mafioso bat ezagutuko dute, Souza Villambrosaren etsai amorratua. Hirukote hau bi aldeen arteko borroka eta iskanbilan sartuko da.

Historiak irauten duen hiru egunetan, hiru pertsonaiek existitzen ez zuela pentsatzen zuten mundu bat ezagutuko dute: drogak, prostituzioa, joko zikina, eta mota guztietako bizioak. Honek beren balore eta orain arteko bizitzaren kontzeptuan aldaketa bat ekarriko du.

Z A R A I A Z I N E M A

Abenduak 5, 6, 7, 8

AIRBAG

Abenduak 7 (Umeentzat)

BADMAN Y ROBIN

Abenduak 12, 13, 14, 15

BEAN

Azaroak 14 (Umeentzat)

BEAN

OHARRA: Abenduaren 6an, zapatua, jai eguna dela eta bi sesio egongo dira: arratsaldeko 7,30etan eta gaueko 10,15etan. Abenduaren 8an, astelehena, sesio bakarra egongo da arratsaldeko 7,30etan.

ORDUTEGIA:

Eguakotxa-zapatua: 10,15
Domeka: 5etan (Umeen sesioa)
7,30
10,15
Astelehena: 10,15

**Liburutegiko txokoa**

Oraingo honetan, Udal Liburutegiko liburu berrien zerrendarekin jarraituz, kontsulta sailari dagozkion liburu multzo bat aukeratu dugu:

- Miguel Angel San Millán
"Economía matematikorako sarrera".
- David Aaker
"Investigación de mercados".
- José Ramón Cruz Mundet
"Archivos municipales de Euskadi".
- Jon Barrenechea
"Como poner fin al contrato de trabajo".
- Eduardo Bueno Campos
"Organización de empresas".
- Integral
"Masajes para la salud".
- Howard Rheingold
"La comunidad virtual".
- Marshall McLuhan
"La aldea global".
- Francis Campagne
"El juguete, el niño, el educador".
- Alonso Alvarez
"HTML Creación de páginas Web".
- Araceli Mangas
"Instituciones y derecho de la Unión Europea".
- Manuel Martínez Sospedra
"Introducción a los partidos políticos".
- Anton Aranburu
"Vegetación de la Comunidad Autónoma del País Vasco".
- Rob Shepherd
"Cómo hacer encuadernación artesanal".
- Pere-Oriol Costa
"Tribus urbanas".
- Emy Armañanzas
"El periodismo electrónico".
- Henriette walter
"La aventura de las lenguas de occidente".

Joseba Lopez de Armentia

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA



**Modan
dagoen guztia**

Iparragirre, 4
Tfnoa. 79 21 24

**Orain
likidazioan**

MIKELOS

Moda
Guztia Zuretzat

Iparragirre 3 ☎ 79 36 67
ARETXABALETA

Bedarreta
taberna

Otalora, 19
Tfnoa: 79 20 89

MAITE
ileapaindegia

Sarasate, ☎ 79 59 05
ARETXABALETA

BR Amaia-Berri, S. L.
Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea Tfno-Faxa: 77 06 49
ARETXABALETA

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA
BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57

Pelikularik hoberenak

**DON
BIDEO**

Lezama Merkatal
zentrua
ARETXABALETA

ABENDUA

5, 6, 7

JOSTAILUEN ERAKUSKETA

Gurasoek umeen jostailuen erosketan orientabide bat izan dezaten jostailuen erakusketa antolatu du Loramendi elkarteak. Erakusketa bost arlo desberdinetan egongo da antolatuta, lantzen den trebetasunaren arabera eta bakoitza bere fitxa teknikoaz: zein adinetarako den egokia, zein trebetasun lantzen den...

Non: Loramendi elkarteak.

Ordutegia: Abenduak 5 arratsaldeko 4etatik 6,30etara. Abenduaren 6 eta 7an, eguerdiko 12etatik ordu 2etara.

4, 9, 18

FILMEA ETA EZTABAIDA

Tril emakume taldeak

**HOMOSEXUALITATEA ETA
LESBIANISMOARI BURUZKO
ZENBAIT HAUSNARKETA** pelikula emanaldiak eta eztabaidak antolatu ditu. Guztiak **Amaia Vazquez** psikologo-sexologak bideratuko ditu.

1. go saioa, filme bat ikusi eta bertan agertzen diren **harreman** **homosexualen inguruko eztabaida** izango da. Abenduaren 4an arratsaldeko 6,30etan.

2- **Homosexualitate eta lesbianismoari buruzko azterketa.** Abenduaren 9an arratsaldeko 6,30etan.

3- **Balore sexualen hezkuntza.** Abenduaren 18an 6,30etan.

6

zapatua

AKORDEOI KONTZERTUA

Janne Rattyak emango du arratsaldeko 8etan parrokiak. Aretxabaleako akordeoi orkestrek antolatuta.

8

astelehena

**SAN MARTIN-SAN JOSE
KOFRADIAREN BATZAR
OROKORRA**

Goizeko 11etan Zaraia zineman.

12

egukotxa

ANTZERKIA

KONTZERTU BELTZA antzezlanak

Deabru beltza taldearen eskutik. Arratsaldeko 8etan Loramendiren lokalean.



13, 14

SANTA LUZIA JAIK GALARTZAN

Abenduaren 13an Santa Luzia eguna. Eguerdiko ordu 2etan etxaflero jaurtiketa eta kanpaiak jai ei hasiera emateko. Arratsaldeko 5etan Santa Luzia meza auzoko elizan. Arratsaldeko 7etan afari-merixenda auzokoentzat elkarte an trikitalariek alaituta.

Abenduaren 14an goizeko 10etan kanpai jotzea. Eguerdiko 12etan meza nagusia auzoko hildakoen alde. Eguerdiko ordu 1etan lunkha auzokoentzat musikaz alaiturik.

Ikastaroak

Loramendiko Tril emakume taldeak antolatuta. Informazioa 77 09 70 telefonoan.

TXALAPARTA ETA GOMA ESPUMA IKASTAROK

Loramendi euskara elkarte eta gazte asanbladak antolatuta. Informazioa 77 09 70 telefonoan.

ESKULANETAKO IKASTAROA

Aretxabaletako kultura sailak antolatuta. Aretxabaletako kultur etxean. Informazioa 79 01 05 telefonoan.

SUKALDARITZA IKASTAROA

Abenduaren 15etik 21era bitartean.

Lehiaketak

ESKAPARATE LEHIAKETA

Abenduaren 8tik 31ra bitartean. **Udaleko kultura sailak** antolatuta.



BEHARREZKO TELEFONOAK

Aretxabaleta

- Almen 71 49 64
- Aretxagazeta 79 01 05
- Basotxo 77 09 81
- Euskaltegia 79 21 68
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Hezibide Elkarte 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Kiroletxea 79 64 61
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Liburutegia 79 10 00
- Loramendi E.E. 77 09 70
- Ludoteka 79 05 81
- Murruxo M.E. 79 93 74
- Musika Eskola 79 36 50
- Ortzadar 79 01 84
- Osasun zentroa 79 74 58
- Otalora 79 79 99
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Postetxea 79 28 31
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 79 10 52
- Urats Gain 79 99 11

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 77 91 06
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitalea (Arrasate) 79 53 00
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Larrialdiak (Arrasate) 77 10 43
- Pesa 902 10 12 10
- Renfe (Gasteiz) 23 20 20
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- SOS Deiak 088
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00

LEINTZ BAILARAK 500 URTE GIPUZKOAN ERAKUSKETA

XV-XVI. mendeko dokumentuak, garai hartako lanbideen tresnak, jantziak...

Abenduaren 13tik urtarrilaren 4ra. Euskal txokoan.. Astegunetan 6etatik 8etara. Astebukaeretan 12,30etatik ordu 2etara.



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28
ARETXABALETA

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8 Aralar z/g
Tfnoa: 79 19 34 Tfnoa: 79 16 05
ARETXABALETA


ITURGINTZA



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

Galaxy

ORAIN TDI 110 CV
3.375.000 PTA.TIK AURRERA



F O R D G A L A X Y B E R R I A



Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE

Tel: 79 07 44 / 54

Faxa: 79 62 54

